

# JUEZAS Y JUECES *para la* DEMOCRACIA

## ESTATUTOS

---

Aprobados en el 32º Congreso de Jueces para la Democracia.  
2 de junio de 2017. Lleida

- I. TITULUA. Izena eta helburuak  
Artikuluak 1-2
- II. TITULUA. Elkartearen partaideak  
Artikuluak 3-7 bis
- III. TITULUA. Antolakuntza  
Artikuluak 8-11
- IV. TITULUA. Lurralde Atalak  
Artikuluak 12
- V. TITULUA. Bitarteko ekonomikoak eta kuota-  
erregimena  
Artikuluak 13
- VI. TITULUA. Batzorde eskuordetuak  
Artikuluak 14
- VII. TITULUA. Hauteskunde prozesuaz  
Artikuluak 15-22
- Xedapen gehigarria - Aldi baterako xedapena

# I. TITULUA. Izendapena eta helburuak.

## 1. artikulua.

Konstituzioaren 127. artikuluan aitortzen den eskubidea egikaritzuz, "Demokraziarako Epaileak" Epaile eta Magistratuen Elkarte Profesional gisa eratzen da hurrengo estatutuetan ezartzen diren helburu eta antolaketarekin.

## 2. artikulua.

Elkartearen helburuak hurrengoak dira:

A.- Zuzenbideko Estatu sozial eta demokratikoa indartu eta unibertsalki aintzat harturiko Giza Eskubideak defendatzeko Konstituzioak adierazten dituen askatasun, berdintasun eta aniztasun baloreak egikaritzen duten baldintzen sustapenari erabakitasunezko ekarpena egitea.

B.- Babes juridikoa izateko eskubidea eta Justizia Auzitegietara berdintasun baldintzetan heltzea guztiei bermea emango dien justiziaren oinarrizko eskubidearen asetzea bultzatzea.

C.- Epailearen independentzia, inpartzialitatea eta erantzunkizunari Justizia Administrazioaren erreferente gisa berriro ere balioa ematea sustatzea.

D.- Epailearen zilegitasun demokratikoaren zabalkuntza lortu, askatasunen eta oinarrizko eskubideen babesean burutzen duen jurisdikzio ekintzagatik eta zilegizko eskubide eta interesen babesagatik.

E.- Iritzi publikoak eta magistraturaren gobernu erakundeak Botere Judiziala demokratikoki kontrolatzea erraztea, eta prozesuen jarduera eta praktketan gardentasun printzipioa ziurtatzea eta jurisdikzio ebazpenen ezagutza erraztea.

F.- Orokorrean justiziaren administrazio eta zerbitzua hobetzera bideraturiko ikerlanak eta jarduerak egitea. Hiritarrengandik hurbilago dagoen eta ulergarriagoa, azkarragoa, eraginkorragoa, herriaren partaidetza handiagoa duen, gutxiago jerarkizatua den, independenteagoa eta, azken batean, demokratikagoa den justizia administrazioa lortzera bideraturiko organo eta prozesu aldaketen proposamenak lantzea.

G.- Hurbileko justizia bultzatzea elkarbizitza zibileko justizia bezala, bake eta ohituren justizian sustraitua.

H.- Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren eta botere judizialaren gobernu organo guztien osaketa erakusgarria eta anitza ziurtatzea, eta botere betearazlearen funtzio konstituzionalen jarduera autonomoa eta kontrol parlamentarioaren menpe egotea aldarrikatzea.

I.- Eskola Judiziala epailearen hasierako eta etengabeko prestakuntza gisa duen funtzioa eta zerbitzari publiko bezala gizartean txertatzea eta eskubide eta askatasunen babesle bezala nabarmentzea.

J.- Bere bazkideen interes profesionalen defentsa, prestakuntzarako jarduera sustatzea, eta jurisdikzio betebeharren egikaritzan lan baldintza hobetoak aldarrikatzea.

K.- Estatu eta nazioarte mailako epaile eta legelarien beste elkarte demokratikoekin harremanak bultzatzea eta garapeneko balore konstituzionalak sustatzen dituzten foro sozialetan elkarrearen partaidetza bultzatzea, bereziki gizarte arloan laguntzarik gabeko pertsonen taldeen defentsa helburu dutenetan.

L.- Bazkideek Elkarteko Organoetan partaidetza eraginkorra eta anitza izatea sustatzea.

M.- Aldizkako argitalpenak editatzea.

## **II. TITULUA. Bazkideak.**

### **3. artikulua.**

“Demokraziarako Epaileak” Elkartek estatu mailako eremua dauka, Lurraldeetako Atalen eraketari dagokionez esango denaren kalterik gabe.

### **4. artikulua.**

Zerbitzu aktiboan dauden Epaile eta Magistratuak izan daitezke kideak. Interesatuek dagozkien Lurraldeko Atalean eskatuko dute izen-ematea, eta Atalak erabakiko du onartzen duen ala ez

ebazpen baten bitartez. Ebazpen horren aurka helegitea aurkezteko aukera egongo da Batzorde Iraunkorraren aurrean.

## 5. artikulua.

Bazkideen eskubideak hurrengoak dira:

- a) Batzarretan ahots eta botoz parte hartzea.
- b) Zuzendaritzako karguak aukeratzea eta karguetarako aukeratua izatea. Botoa pertsonala eta ordezkazina izango da.
- c) Elkartearen funtzionamenduaren inguruko informazio guztia eman eta jaso. Elkarteko Organoen bilera guztiak dokumentatuak izango dira. Iritzi-korrante antolatuak sustatu ditzakete eta beraien partaide ere izan daitezke.
- d) Kasu guztietan bermatuko da bi sexuen ordezkaritza ez dela izango ez ehuneko 60tik gorakoa ezta ehuneko 40tik beherakoa ere elkarte organoetan eta elkarteak sustaturiko jardueren antolakuntzan.

## 6. artikulua.

Bazkidearen betebeharrak hurrengoak izango dira:

- a) Onarturiko akordioak errespetatzea.
- b) Elkartearen helburuak lortzen ahalegintzea.
- c) Biltzar Nagusiak ezarritako kuota ordaintzea.

## 7. artikulua.

Bazkide izaera galdu egingo da:

- a) Bazkideak berak eskatuta.

- b) Lanean dagoen Magistratu edo Epaille izaera galtzen bada.
- c) Bazkidearen betebeharrak behin eta berriz eta modu larrian betetzen ez badira Batzorde Iraunkorrek hartutako erabakiaren bitartez.
- d) Epailleen beste elkarte profesional batean alta ematen bada.

## **7. Artikulua bis**

Emeritu izaerarekin magistratu jubilatutak sar daitezke elkartean, eta, aldeko bezala, praktikan dauden epaileak.

Elkartekide emeritu eta aldekoek kuotaren %50a ordainduko dute, ahotsarekin eta botorik gabe parte hartu dezakete bileretan, jardunaldietan eta biltzarretan, ezin izango dute zuzendaritza-kargurik eduki eta gainontzeko elkartekideei bidaltzen zaien dokumentazio guztia eta "Información y Debate" aldizkaria jasoko dituzte.

## **III. TITULUA. Antolakuntza.**

### **8. artikulua.**

Elkartearen organoak hurrengoak dira:

- a) Biltzar Nagusia edo Kongresua.
- b) Batzorde Iraunkorra.
- c) Idazkaritza.

### **9. artikulua.**

Biltzar Nagusia edo Kongresua.

Bazkide guztiek osatuko dute. Hala ere, kuoten ordainketan egunean ez dagoenak ezin izango du parte hartu.

Kongresuak akordioak gehiengo sinplez hartuko ditu. Estatutuen aldaketaren eta Elkartearen desegitearen edo beste elkarteren batekin fusionatu edo batzearen inguruko akordioek partaideen bi herenen gehiengoa eskatuko du.

a) Deialdia.

Idazkaritzak era ohikoan egingo du, bi urtero baten behintzat.

Batzorde iraunkorrak agindu ahal izango du bere kideen erabateko gehiengoak erabakitzen badu. Hiru lurralde Atalek eskatzen badute Batzorde Iraunkorrak deialdia egin beharko du.

b) Eguneko gai-zerrenda.

Idazkaritzak erabakitako gaiak sartuko dira bertan, eta biurteko ohiko bileran derrigorrez aurrekontuak egitea eta kontuak ematea eta Idazkaritzaren hautatzea sartuko dira gai-zerrendan. Halaber, Batzorde Iraunkorrak onartu edota Lurralde Atalek eskatzen dituzten gaiak sartuko dira eguneko gai-zerrendan.

c) Mahaia.

Idazkaritzaren presidentziarenpean eratua, lehenik, biltzarraren Lehendakaria, Lehendakariordea eta Idazkaria aukeratuko dira. Hirurek Mahaia osatuko dute eta Kongresuan zehar sor daitezkeen gaiak erabakitzeko ahalmen osoa izango dute.

## 10. artikulua.

Batzorde Iraunkorra.

Hamabigarren artikulua aitutzen dituen Lurralde Ataletako Koordinatzaileek eta Idazkaritzako kideek osatuko dute Batzorde Iraunkorra. Halaber, Hamalagarren Artikuluak dioena betez eratutako Batzorde eskuordetutako lehendakariak ere hartuko dute parte, eta beraien gai bereziko auzietan ahotsa eta botoa izango dute. Batzorde Iraunkorreko saioretara Lurralde Atal bakoitzak izendaturiko bazkidea ere joan ahal izango da, koordinatzailea edo koordinatzaileak

ordezkatuz.

Estatutu hauek ematen dizkieten ahalmenez gainera, kongresuari dagozkion berberak ere dagozkie, indarturiko bozen gehiengoa exijitzen dutenak izan ezik.

Halaber, urteroko ohiko bileran Batzorde Iraunkorrari dagokio Idazkaritzaren jardueren txostena eta aurrekontuen txostena jasotzea.

Azkenik, hauteskundeak egin behar diren urtean, Batzorde Iraunkorrek izendatu beharko du hauteskunde-mahaia, nagusiki biltzarra ospatzen den lurralde ataleko kideen artetik.

Gutxienez behin bilduko da urtero, Idazkaritzak deituta. Gainera, gutxienez HIRU Lurralde atalek eskatzen dutenean ere bilduko da, Eguneko gai-zerrenda zehatz bat proposatuz.

## **11.** artikulua.

Idazkaritza.

- 1.- Bazkideek aukeraturiko bederatzi kidek osatuko dute.
- 2.- Idazkaritzako kideak hautatzeko hurrengo artikuluetan arauturiko aukeraketa sistema erabiliko da, eta bozik gehien jasotzen dituzten bederatzi kideak aukeratuko dira.
- 3.- Irtetzen den Idazkaritzako kideak ezin dira Idazkaritza berrirako hautagaiak izan, karguan bi agintaldi jarraian egon bada.
- 4.- Idazkaritzari dagokio kongresuaren eta Batzorde Iraunkorren akordioak betearaztea eta bi organoei proposamenak adieraztea eztabaidatuak izan daitezen. Gainera, elkartearen ondarea eta betearazle eta dokumentazio eginkizunak ere administratzea dagokio. Bereziki, Lurralde Atalen informazioa igorri eta jaso beharko du, eta beharrezkotzat joko duenean edo hiru Atalek hala eskatuko dutenean, Lurralde Koordinatzaileak bilera batera deituko ditu Idazkaritzarekin edo Batzorde Iraunkorrenekin gai zehatzak aztertzeko.

Idazkaritzak bermatu egingo du elkarrekin parte hartzen duen jarduera eta izendapen guztietan bazkide guztien partaidetza eta 5 d. artikuluan agertzen den parekotasun printzipioa errespetatzea.

- 5.- Urtean behin, Batzorde Iraunkorren bitartez jardueren zerrenda bat eta aurrekontuaren txosten bat jakinaraziko die lurralde koordinatzaileei. Aurrekontuaren txostenean bereizita

agertuko dira diru-sarrerak eta gastuak, kontzeptuak xehatuta.

6.- Hauteskunde mahaiaren kideen izendapena igorriko die Lurralde Atalei, kongresuak egin baino 80 egun lehenago gehienez.

7.- Behin aukeratuta, modu autonomoan arautuko du bere funtzionamendua. Bere agintaldia bi urtekoa izango da.

8.- Idazkaritzako kideren batek karguari uko egiten badio edo uzten badu, Batzorde Iraunkorrek ordezeko bat izendatuko du. Batzorde Iraunkorra bildu arte, kargua utzi duen kidearen Lurralde Atalak izendatuko du ordezekoa.

9.- Idazkaritzak izango du elkartearen ordezkari Estatu organo, auzitegi eta bulegoetan, eta beharrezko ahalordeak emango ditu elkartearen izenean, auzietarako ahalordeak barne.

10.- Idazkaritzak izango du elkartearen ordezkari hirugarren pertsonen aurrean eta diru-laguntzak jaso, aseguru-polizak izenpetu, langileen kontratazioak egin, alokairuen kontratuak egin eta, orokorrean, ohiko ardura edozein funtzio egin ahal izango ditu.

11.- Idazkaritzak ahalmena dauka bere eskumen guztiak edo hauetako batzuk bere kideei eskuordetzeko, edozein bi kidek modu mankomunatuan buru ditzaten. Kide horiek, hirugarrenei, prokuradorei, letratuei eta Idazkari Orokor Teknikoari ahalordea egiletsi ahal izango die ekintza judizialak egikaritzeko, kontratatzeko eta elkartearen jarduerak ahalbidera daitezen beharrezko eginkizunak burutzeko.

Zerbitzu tekniko-administratibo bat egongo da Idazkaritzan, Lurralde Ataletan eta Batzorde Iraunkorrean harturiko akordioak gauzatzeko.

## **IV. TITULUA. Lurralde Atalak.**

### **12. artikulua.**

Lurralde bakoitzean autonomia erkidego baten jardura zehaztu ahal izateko, lurralde bakoitzean lanean dauden bazkideek Lurralde Atalak eratuko dituzte, modu autonomoan beren antolakuntza erabakitzen dutelarik.

Kongresua egin eta bi hilabete geroago Lurralde Atal bakoitzean Koordinatzaileen aukeraketa egingo da.

Lurralde Atalei dagozkien Elkartearen helburuak garatzea bere lurraldearen eremuan eta elkarte partaidetza sustatzea eta bere lurraldeko bazkideei igortzea Idazkaritzak elkartearen jarduerari eta aurrekontuari buruz egiten dituen txostenak.

Atal bakoitzak Koordinatzaile bat izendatuko du bere lurraldean. Halaber, bere lurraldean Elkartearen koordinazio eta ordezkaritza lanetan lagundu ahal izateko bi kide gehiago izendatu ahal izango ditu.

## **V. TITULUA. Bitarteko ekonomikoak eta kuota-erregimena.**

### **13. artikulua.**

Elkartearen ondarea modu honetan osatuko da:

- a) Kongresuak ezarriko dituen ohiko eta ezohizko kuotekin.
- b) Idazkaritzak onartzea erabakiko dituen diru-laguntza edo dohaintzekin.

Lurralde Atalek kuota bereziak ezarri ahal izango dizkiete bere lurraldeko bazkideei. Halaber, antolaturiko iritzi-korronteek ere gauza bera egin ahal izango dute.

- c) Lurralde atalen elkarte gastuetarako diru-sorta bat aurreikusiko da. Diru- sorta hori Idazkaritzari eskatuko zaio, gastua sortuko duen jarduera aurretik justifikatuz eta onartuz.

## **VI. TITULUA. Batzorde eskuordetuak.**

### **14. artikulua.**

Batzorde Eskuordetuak.

- 1.- Batzordeak eratu ahal izango dira bere garrantziagatik tratamendu zehatza, ardura berezia eta iraunkorra eta antolakuntza eta azpiegitura egokia merezi duten helburu zehatzak

lortzeko.

- 2.- Elkarteko edozein bazkide izan daiteke sor daitezkeen batzordeko kide. Batzorde hauetako arduradunak Koordinatzaileak izango dira. Batzordeko kideek aukeratuko dute Koordinatzailea.
- 3.- Batzorde bakoitzeko Koordinatzaileak Elkartearen ordezkari gisako ahalmenak izango ditu bere sorrera eragin duten helburuen inguruan.
- 4.- Batzordeko Koordinatzaileak bere kudeaketaren inguruan kontuak eman beharko dizkio Batzorde Iraunkorrari Batzorde honek egingo dituen bilkura guztietan, eta Idazkaritzari erakunde honek koordinatzaileari eskatuko dion bakoitzean.
- 5.- Batzorde bakoitzak finantzia autonomia izango du baliabideak lortu eta kudeatzeko, Elkarreak eman diezazkionak kalterik egin gabe.
- 6.- Batzorde Eskuordetu bakoitzaren egoitza bere Koordinatzailearen Lurralde Atalekoa edo elkartearen egoitza izango da.
- 7.- Batzorde eskuordetuak desegin ahal izango dira Batzorde Iraunkorrak hartutako erabaki baten bitartez, ofizioz edo Idazkaritzak eskatzen badu. Idazkaritzak behin- behinean eten dezake beren funtzionamendua Batzorde Iraunkorrak erabaki bat hartuko duen arte.
- 8.- "JUECES PARA LA DEMOCRACIA" (Demokraziarako Epaileak) deritzon aldizkariaren argitalpenaren ardura bere gain duen batzordea izaera iraunkorreko Batzorde Eskuordetua izango da., eta honek bere Argitalpen Kontseilu eratuko du egoitza Madrilen duela. Bere Koordinatzaileak harreman bereziak izango ditu Idazkaritzarekin, Elkartearen adierazpen, iritzi eta eztabaida organoaren izaera ziurtatzeko asmoz.

## VII. TITULUA. Hauteskunde prozesuaz.

### 15. artikulua.

Hautagai izateko baldintzak.

- a.- Bazkidea izatea.
- b.- Kuotak ordainduta izatea.

c.- Karguan bi agintaldi jarraian egon ez izana.

## 16. artikulua.

Hautaketa sistema.

Hautagaiak aukeratu behar diren hautagai guztiekin osaturiko zerrenda oso batekin aurkez daitezke. Halaber, kopuru txikiagoko zerrenda batekin edo modu independentean aurkez daitezke.

Hautesleek bederatzi hautagai gehienez aukeratu behar dituzte, era daitezkeen zerrendekin lotuta egon gabe eta zenbait zerrendatako hautagaiak hautatzeko aukera izango dute.

Boz gehien jaso dituzten hautagaiak aukeratuko dira, bederatzi postu osatu arte. Berdinketa gertatzen bada, emakumezko hautagaia gizonezkoaren aurretik izendatuko da. Baldintza bereak badira, elkartean antzintasun gehien duena aukeratuko da.

## 17. artikulua.

Prozesuaren garapena.

Lurralde atal bakoitzak Idazkaritzaren kide izatea nahi dituen hautagaiak proposa ditzake, baina ez da beharrezkoa bete beharreko postu bezainbeste hautagai proposatzea.

Aukeraketa Atal bakoitzean egingo da, gehienez, biltzarra egin baino 60 egun lehenago. Emaitza Hauteskunde Mahaiaren Lehendakariari jakinaraziko zaio, posta arruntez edo posta elektronikoz, Biltzarra egin baino 50 egun lehenago.

Beraien Atalak aukeratu ez dituzten bazkideak ere hautagai izan daitezke, bakarrik edota beste bazkide batzurekin batuta hautagai bezala hauteskunde prozesuan parte hartu nahi dutenak eta Mahaiari aipatu epe berean parte hartzeko nahi hori bere aldarrikapenerako jakinarazten diotenak. Hautagaiak ezin dira zerrenda bat baino gehiagotan aurkeztu, eta bazkideek ezin izango dute hautagaitza bat baino gehiago bermatu.

Hautagaitzen aurkezpenarekin batera beren programak aurkez daiteke, eta aldarrikapen akordioarekin batera helaraziko zaie bazkideei.

Hautagaitzak hauteskunde Mahaiaren esku egon behar dira biltzarra egin baino 50 egun lehenago.

## 18. artikulua.

Hauteskunde Mahaia.

Hauteskunde mahaia Batzorde Iraunkorrek aukeratuko du Biltzarra deituko denean. Lehendakariak, Idazkariak eta Batzordekideak osatuko dute, eta kongresuak egin baino hiru hilabete lehenago eratuko da, gutxienez.

## 19. artikulua.

Hauteskunde Mahaiaren eginkizunak.

- a.- Idazkaritzari bere eraketaren berri ematea kongresua egin baino 90 egun lehenago.
- b.-Hautagaitzak jaso eta estatutuek ezartzen dituzten eskakizunak betetzen dituzten ala ez egiaztatzea, eta eskakizun horiek betetzen dituzten hautagaitzak aldarrikatzea.
- c.- Bazkideei hautagaien izenak eta beraien programak igortzea, biltzarra egin baino 40 egun lehenago,gutxienez.
- d.- Hauteskunde prozesua zuzentzea eta sor daitezkeen kontuak bere kideen bozen gehiengoz erabakitzea.
- e.- Posta ziurtatuaren bitartez bidalitako eta Mahaira zuzenean igorritako botoak jasotzea.
- f.- Bozak kongresuan zenbatzea, kongresuan mahaiaren laguntzarekin, eta aukeraturiko hautagaiak aldarrikatzea.

## 20. artikulua.

Hauteskunde Mahaiko Lehendakariak izendaturiko hautagaiak irakurriko ditu hauteskunde kongresuetan. Ondoren, hautagai bakoitzak bere aurkezpena egingo du eta hala balegokio kide den zerrenda adieraziko du. Aurkezpena eginda, aukeraketa burutuko da, postaz jasotako bozak kontuan hartuz eta boz gehien jaso dituztenak aukeratuz, bederatzira heldu arte.

Boto guztien zenbaketa egin eta gero, ekitaldian bertan emandakoekin hasiz, hauteskunde mahaiak aukeratuak aldarrikatuko ditu, Idazkaritza berriaren kide izango direnak, alegia.

## **21. artikulua.**

Hautesleak.

Kuotak ordaindu dituzten bazkide guztiak dira hautesle.

## **22. artikulua.**

Botoaz.

Botoa pertsonala eta ordezkazina da.

Biltzarrera joanez edota posta ziurtatuz bozka daiteke. Bigarren kasuan N.A.N. edota agiri profesionala erabiliko da eta botoa Hauteskunde Mahaiko Lehendakariari bidali beharko da. Botoak ez dira zenbatuko kongresuan egin baino sei egun lehenago bidaltzen ez badira.

## **Xedapen gehigarria.**

Elkarteak bere gain hartzen du, printzipio proposamen gisara, bultzatzea agintaldi bakoitzaren ondoren elkarteko ordezkari organo ezberdinetako kargu eta eginkizunak berri daitezela eta haiek txandakakoak, kolegiatuak eta ez bakarrekoak izan daitezela.

## **Aldi baterako xedapena.**

11.3 eta 15.c artikuluetan ezarritakoa ez da atzeraeraginezkoa izango, eta estatutuen berritze honen onarpenetik hasita aplikatuko dira.